

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Ibai Zubizarreta Pagaldai*

*Arrasate,  
Gipuzkoa  
(1991)*

Aurkibidea



# Biografia



Kaletarra, baina guraso biak baserrikoak ditu eta harreman estua izan du umetatik baserri munduarekin. Biologia ikasi zuen Bilbon eta basozaina da, Lea Artibain. Aste barruan Ermuan bizi da. Arrasateko hitanoari buruzko elkarrizketa egin genion, Aramaioko Markel Arriolabengoa lagunarekin batera, elkarrekin hika egiteko ohitura dutelako. Aitak hika egiten dio Ibairi, baina ez haren arrebari. Ibaireren gurasoak ere elkarrizketatu ditugu, proiektu bererako: Koldo Zubizarreta eta Amaia Pagaldai.

## Zintak

### ARR-203

- **Proiektua:** Arrasaten hika
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2024-06-11
- **Iraupena:** 91 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

## Pasarteak

### 1. Aramaioko eta Arrasateko hika

- **Erref:** ARR-203/003
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:04:52. **Bukatu:** 00:06:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

#### Laburpena:

Baserritarrengandik jaso du hika. Aurreko belaunaldiekin lotuta dagoela uste du. Aramaioko auzoetako hitanoak zelakoak diren azaltzen du.

### 2. Baserri giroan jaso eta egiten du hika

- **Erref:** ARR-203/014
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:26:10. **Bukatu:** 00:29:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena:**

Etxean aitak egin izan dio hika, osabek ere bai... Baserriarekin lotura izateak hika ezagutzeko aukera eman dio, baita egiteko ere. Amak ez dio egin izan baina bera entzun izan du hika. Noka egitea kosta egiten zaio. Aitak arrebari ez dio egin izan.

**3. Nori bai, nori ez, nahastea**

- **Erref:** ARR-203/015
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:29:55. **Bukatu:** 00:31:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena:**

Aitak anaiekin ez du hika egiten baina arrebarekin denek egiten dute. Izebak lbairi eta arrebari ez die egiten hika.

**4. Hika zela hasi zen eta zeinekin egiten duen**

- **Erref:** ARR-203/016
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:31:18. **Bukatu:** 00:34:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena:**

Unibertsitatean hasi zen hika erabiltzen, Segurako ikaskide batekin. Garai batean kuadrillan erdaraz egiten zuten eta barne-gatazka bat bizi ondoren, denekin euskaraz hasi zen.

**5. Hitzartu gabe hasi ziren hika elkarrekin**

- **Erref:** ARR-203/017
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:34:48. **Bukatu:** 00:37:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena:**

Basoarekiko eta naturarekiko zaletasunak batu ditu. Batzuetan hika egiten dute eta beste batzuetan ez. Hitanoa galtzeak pena ematen dio lbairi eta bere ekarpena egin nahi du.

**6. Lea-Artibain hitanoak antzeko egoera**

- **Erref:** ARR-203/018
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:37:31. **Bukatu:** 00:39:45

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena:**

Lea-Artibain hika egiten dutela konturatu da eta berearen antzekoa dela. Horrek ere animatu egin du. Zornotzako emakume batek beti hika egiten dio eta asko gozaten du.

## 7. Mugikorraren erabilera neurtzeaz

- **Erref:** ARR-203/029
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:59:35. **Bukatu:** 01:02:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Teknologia berriak eta sare sozialak

**Laburpena:**

Mugikorrak eragiten dion antsietateaz ari da Markel. Ibaik kontaktzen du lanean izandako gorabehera batek nola arautu duen mugikorraren erabilera.

## 8. Genero berdintasunerako asko falta da

- **Erref:** ARR-203/030
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 01:02:47. **Bukatu:** 01:05:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

**Laburpena:**

Emakumeen bizimodua lehen eta orain gizonena baino gogorragoa dela uste du Ibaik. Bere etxean etxeko lanak nahiko banatuta egon direla kontaktzen du.

## 9. Gustuko musika

- **Erref:** ARR-203/032
- **Iraupena:** 0:03:27. **Hasi:** 01:07:29. **Bukatu:** 01:10:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kultura » Musika

**Laburpena:**

Euskal musika aparteko genero bat bezala hartzeak harritu egiten du Ibaik. Musika berritzailea eta tradizionala, biak gustoko ditu Markelek.

## 10. Euskararen egoera Arrasaten

- **Erref:** ARR-203/034
- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 01:14:34. **Bukatu:** 01:17:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskararen egoera

**Laburpena:**

Ibaik bere lagunarte euskaldunari buruz berba egiten du. Uribe inguruan euskarak duen egoeraz dihardu. Klean egoera beltz ikusten du.

**11. Euskararen egoera Aramaixon; taberna giroa erdaldunagoa**

- **Erref:** ARR-203/035
- **Iraupena:** 0:04:15. **Hasi:** 01:17:55. **Bukatu:** 01:22:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskararen egoera

**Laburpena:**

Aramaion euskararen egoera antzera dagoela iruditzen zaio Markeli. Adinaren arabera, hizkuntza aldaketak ematen direla kontatzen du. Institutuan burlak jasotzen zituzten aramaioarrak izatearren, baserritartzat eta gutxiagotzat hartzen zituztelako.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

*2026-05-11*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com